

Ezpalak

JON TORNER

Pablo Picasso k egindako marrazki, grabatu eta litografiak jarri dituzte ikusgai Bilboko Arte Eder Museoa, *Picasso eta liburuak* izenburupean. Erakusketa urtarrilaren 11 arte izango da zabalik. Bestalde, Miquel Navarro artista valentziarrak Guggenheim museoa paratu du *Zure mundua, zure hiria* izeneko erakusketa. Bi mila pieza txikirekin osatutako hiria egin du Navarrok. Artistaren sormen prozesua ezagutaraztea du xede erakusketak, baita giza-dimentsioaren kontzeptuaz hausnartzea ere.

Harkaitz Cano k Hanif Kureishi idazle eta gidolari ingelesaren *Intimitea* (Intimacy) nobela euskaratu du. Emaztea eta semeak uztear dagoen gizonaren istorioa kontatzen du Txalaparta argitaletxeak plazaratu duen liburuak.

Euskarazko literatur lehiaketa antolatu du Iruñeko Udalak

IRUÑEKO UDALAK egile berriei zuzendutako euskarazko literatur lehiaketa antolatu du. Hiru atal ditu: poesia, narrazioa eta bertso-paperak. Sail bakoitzean bi sari emango dira: 2.100 eurokoa bata eta 1.000 eurokoa bigarrena. Idazle nafarrek eta helbidea Nafarroan finkaturik dutenek parte har dezakete lehiaketan. Lanak aurkezteko epea 2008ko urriaren 20an amaituko da.

Dinux 3.0 kalean da Diocesanas-en eskutik

GASTEIZKO Diocesanas ikastetxeak jendearen eskura jarri du bere euskara hutsezko sistema eragilearen hirugarren bertsioa: Dinux 3.0 (www.dinux.org). Haren izena Diocesanas edo D Ereduko Sistema Eragilea eta Linux batzearen emaitza da. Ubuntu oinarritzen da eta elebiduna da –euskaraz eta gaztelaniaz erabil daiteke–, lehen aukera euskarazkoa den arren.

Abarrak

Umeak, nerabeak eta izotza



SAIL OFIZIALA

Imajinario falta? Goiko hiru hitzetan konprimitzen ahal dira igandera (21) bitartean Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean pasa dituzten pelikula gehienetako protagonistak; umeak nagusi *Asbe du-pa* eta *The boy in the Striped Pyjamas* filmetan. Aurrenekoa, Samira Makhmalbaf-ena, dieran jotzetik gertu dago, baina metrajea kimatuz gero baino ez luke lortuko. Ondo egindakoa, iradokitzailea; zati batzuk sakrifikatuta hobe ordea. Pijama marradunaz jantzitako mutikoa beste kontu bat da: Sail Ofizialean eman duten produktu anodinoena izan da orain arte. Eskerrak lehiaketaz kanpo dagoela. *Genova*-n Michael Winterbottom-ek esku trebea erakutsi du hiri italiarra bere narratibaren mesedetan erabiltzeko. Oso emaitza sinesgarria atera zaio alaba nerabeak arrastoan sartu nahian dabilen aitaren istorioarekin. Azkenik izotza, *Den du frygter* eta *Frozen River* lanetan (Danimarkan kokatua aurrena, Kanada eta AEBen arteko mugan bigarrena). *Frozen river* polikiago egina iruditu zait: uste dut Courtney Hunt zeresana emango duen zuzendaria izango dela.



GORKA BEREZIARTUA


Atzera begiratu gabe korrika



ZABALTEGI

Zabaltegi sailean, Woody Allenek eta Cohen anaiek bereganatu dute jaialdiko lehen egunetako arreta handiena. Euren filmez gain, ordea, beste hainbat lan interesgarri ikusteko parada izan dugu. Gabriel Velázquez espainiarrek bakarrik zuzendu duen lehen pelikula gomendatzen dizuegu hemendik: *Amateurs*.

Gai unibertsala da bakardadea, zineman –eta oro har arte guztietan– hainbestetan errepikatua. *Amateurs* en ere, ama hil ostean bakarrik geratuko da Blanca, 16 urteko neskatu frantsesa. Eta aitaren bila joango da Madrilera. Han, aita beharrez Julio aurkituko du, jubilatzeaz dagoen langilea, bakarrik hau ere. Bien arteko harremana jorratu du filmak, ikuspegi erraz, poetiko eta ederretatik aldenduz. Bizitza gordina da, errealitatea krudela, eta berau islatuz, gehiegi esplikatuz gabe, urratsez urrats aurrera egingo du pelikulak. Finean, “alaba berriaren” pasioarekin –korrika egitea– bat egitea ez da nahikoa berau hezteko. Neska protagonistak korrika hasten du pelikula, eta korrika bukatu: noraezan, helmuga garbirik gabe, baina beti aurrera.



MIKEL GARCIA